



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

GARBITU GABEKO material arkeologikoetan esku hartzeko gomendioak

Elementu arkeologikoak manipulatu, aldi baterako biltegitatu eta behin betiko gordetzeko prozesuetan, prebentziazko kontserbazio neurriak hartu behar dira, objektuak hondatzea eragin dezaketen arriskuak saihesteko edo murrizteko. Horretarako, **languneak** garbi, lehor eta aireztatuta egon beharko dira; lurreko objektuak isolatuko dira; ez da altzari ezegonkorrik egongo, eta metalezko gainazalak plastikoz edo paperez forratuko dira.

GARBITZEA

Hona hemen **zer irizpideren arabera zehazten den objektu bat nola eta zer mailatan garbitu behar den**: objektu bat zer materiarekin egin den, zer kontserbazio egoeratan dagoen, eta zer dekorazio daukan edo, analisirako lagin gisa, handik zer atera edo kontserbatu behar den. Materialak kontu handiz **ikuskatu** behar dira, zehazteko ea haien kontserbazio egoerak manipulazio jakin bat ahalbidetzen duen. Ez da prozedurarik orokortuko. **Garrantzitsua da** ahal dela objektuak **bereiztea** beren izaeraren arabera: organikoa (giza aztarnak, animalia aztarnak) edo ez-organikoa (material litikoak, zeramika, iltzukuak, etab.). Halaber, komeni da sailkatzea pisuaren, neurrien eta osotasun egoeraren arabera (osoa, osatugabea eta/edo zatikatua), kalteak saihesteko.

Garbiketa prozesua da zailena. Ez material guztiak berdin garbitzen dira, ez edonor da gai garbiketa egokia egiteko. Material arkeologikoak kontserbatzen eta zaharberitzen adituak diren pertsonak soilik esku hartu behar dute material askotan. Egin beharreko garbiketan, garbitzailea zorrotz mugatuko da kentzera zeramikan, harrian edo behar bezain sendoak diren beste material batzuetan itsatsita dauden gainazaleko sedimentu ez-organikoak (ez-zehaztuak): lurra, hareak, lohia, etab. **Ahal den neurrian, elementu horiek lehentasunez lehorrean kenduko dira.** Garbitu behar izanez gero (garbitzeko premia duten eta egoera onean dauden materialak), **ur hotzarekin** egingo da. Materialak bere sendotasunaren gaineko zalantzak eragiten baditu, komeni da haren zati batean **disolbagarritasun probak eta garbiketaren kontrako erresistentzia probak** egitea, multzo osoa uretan sartu baino lehen. Zalantzarik izanez gero, hobe ezer ez egitea.

Erreminta ez-kaltegarriak erabiliko dira beti (zurda leuneko eskuilak eta brotxak, espatulak edo zurezko zotzak) metakinean eragiteko. Ez da komeni gehiegi garbitzea edo kentzea **eskuilatze leun** batek kentzen ez dituen edozein motatako hondakinak. Inola ere ez dira erabiliko zuzenean objektuen gainean edozein motatako tresna metalikoak, zorrotzak, ebakitzailak edo gogorrak.

Ez da inoiz **garbituko** zeramika, iltzuku, harri edo bestelako materialik **estaldura edo dekorazio delikatuak** baditu, hala nola pintura edo inskripzioak edo grabatutako motiboak. Ez eta zeramika, iltzuku, harri edo **bestelako materialik ere, azalera disgregagarria edo esfoliagarria duenik.** Hezur material antropologikoa edo faunarena —eta soilik kontserbazio egoera onean badago— ahal dela lehorrean garbituko da. Ura erabiliz gero, zeramika, harri eta abarretarako gomendatutako jarraibide berberei jarraituko zaie.

Inolaz ere ez dira garbituko, ez lehorrean, ez hezean (kontserbazio egoera edozein dela ere), **metalezko piezak, gainazal apaindua duten harrizko edo zeramikazko objektuak,**



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

horma pinturak, material organikoak (zura, ehuna, larrua, material antropologikoa edo faunarena ez den hezurra), etab.

LEHORTZEA

Garbitzeko ura erabili ondoren, eta enbalaje egokian gorde baino lehen, materialak lehortu egin behar dira. Garrantzitsua da **astiro eta apurka-apurka** lehortzea. Objektuak ez dira inoiz eguzkiaren zuzeneko argitan jarriko prozesua bizkortzeko. **Ez da erabiliko metalezko mahai, erretilu edo saretik**, hezetasunaren eraginez sorturiko korrosioak orbanak eragin baititzake piezetan. Materialak zabaldu egingo dira, pilatu gabe eta haien artean bereizita.

ENBALAJEA

Material isolatzaile edo motelgarri gisa, produktu geldoak erabil daitezke (polietilenozko poltsa gardenak, burbuiladun plastikozko filma, tizua eta plastikozko edo kartoizko kutxa erresistenteak), egoera onean badaude eta metalezko elementurik ez badute. Pisu edo tamaina handiko elementuen kasuan, egurrezko edo plastikozko paletak erabili ahal izango dira.

Material hauek ezin dira onartu objektu arkeologikoak enbalatzeko: kotoia, apar goma, poliuretano aparra, egurrezko txirbila, egunkari papera, aluminiozko xafla. Era berean, ez dira berrerabiliko elikagaien ontziak.

Horma pinturen hondarrak gordetzerakoan edo biltegitratzerakoan, komeni da ez sartzea plastikozko poltsetan, puskak elkar ukitu eta hondatu edo sakabanatu ez daitezen. Edukiontzi zurruntan gordetzea gomendatzen da, izan kartoizkoak zein plastikozkoak (tupper motakoak edo biltegitratze kaxa erakoak).

Zaharberrikuntza Zerbitzuari jakinaraziko zaio biltegitratze, manipulazio edo kontserbazio baldintza bereziak behar dituzten objektuak daudela, berrikusi eta aholkularitza egokia eman ahal izateko.